

## **David Johnstone – Biolontxelo-jotzaile, konpositore eta musika-sortzailearen biografia**

**Harizko instrumentuen alorrean egun Iberiar penintsulan diren musikaririk sortzaileenetariko eta interesgarrienetakoa da anitzen ustez; biolontxelo-jotzaile multi-fazetiko gisa daraman ibilbidea konposizio lanarekin uztartzen du.**

Sortzez britainiarra da eta 9 urte zituela hasi zen biolontxelo jotzen. Orduan izan zituen irakasleetatik, Martin Bochmann biolontxelo-jotzaile alemaniarra izan zen eraginik handiena utzi ziona. Britainia Handiko Orkestra Gazte Nazionaleko kidea izan zen. Lau urtez ikasi zuen Londresko Royal Academy of Music; han Derek Simpson, Sidney Griller eta Norman Fulton izan zituen irakasle, besteak beste. William Pleeth eta Lynn Harrell ere izan zituen aholkulari preziatu.

Espainiako "Nafarroako Orkestra Sinfonikoan" biolontxelo bakarlari hamar urtez luze aritu baino lehenago, britainiar orkestra profesional hainbatetan ibili zen (esate baterako, Royal Philharmonic Orkestran, London Concert Orkestran eta B.B.C.-ren Galesko Orkestra Nazionalan). Parte hartzen du B3 Classic nazioarteko hirukotean (klarinete-biolontxelo-piano) eta Neofusion taldean (biolontxeloaren eta akordeoiaren inguruan eratutako taldea berau, Javier López Jasorekin batera), besteak beste. Erraz moldatzen da musika-lan desberdinetan, eta horrek aukera eman dio biolontxelo-jotzaile gisa parte hartzeko musika-jarduera anitzetan. David Rubio – Cambridge 1993 motako biolontxelo jotzen du Johnstonek.

Konpositore lanean, berriz, harizko musika-tresnak edo/eta musika klasiko arina ditu gogokoen. 60ren bat musika-lan ditu argitara emanak Creighton's Collection britainiar argitaletxearen eskutik (Cardiff, Gales). Haren konposizio-lanak CD anitzetan bildu izan dira, esate baterako, Non Profit Chamber Orkestrarekin eta B3 Classic hirukotearekin Warner Music Spain argitaletxearentzat.

Haren azken konposizio-lanetakoak dira Lau Urtaroak Biolin bakarlari eta harizko orkestrarentzat, Kontzertu Pop-Klasikoa Biolontxeloarentzat, Kontzertu bat Akordeoiarentzat eta Orkestrarentzat, Kontzertante Bikoitza Solo Biolin, Solo Cello eta Orkestrarentzat, harizko laukotearentzako pieza bakun anitz, eskualde europarretan oinarrituak, eta akordeoiaren errepertorioarako lan anitz (bereziki tarteko mailako ikasleentzat). Bestalde, espezialitate kuttuna du harizko orkestretarako piezak sortu eta gazte-orkestren eta kontserbatorioetako taldeen gaitasunetara egokituta eskrituratzea. Biolontxeloaren munduan, "Cadenzas and Cadences" eskuliburua idatzi du, eta biolontxelo bakarlariarentzako pieza anitz, "ongi jotzeko moduko" birtuosismo batez idatzitakoak, adituen arabera gure garaian alor horretan egindako ekarpenik baliotsuenetakoak direnak.

Transkripzio anitz egin izan ditu biolontxelo bakarlariarentzat, biolontxelo eta pianoarentzat eta biolontxelo anitzeko taldeentzat, beren baitan hartzen dituztenak biolontxelo-bikoteetatik hasi eta biolontxelo-orkestretaraino.

Haren Web-orri arrakastasua honako hau da: [www.johnstone-music.com](http://www.johnstone-music.com) . Bertan biltzen ditu jatorrizko partitura, moldaketa-lan nahiz artikulu idatzien doako deskargak, bai eta historiako biolontxelo-jotzaile ospetsuen direktorio/liburutegia ere.

***Itzulpena: Asis Arbide Camps***